

ABIZENAK

ELGARRESTA: Zumarragan asi eta Urretxu-inguruan. (Zumarraga-1383).

“Elka-” lur landua da eta “-sta”k ugaritasuna adierazten dau.

ELGEZABAL: Mungiako auzo baten izena da eta Muxikan be badago. (Bilbao-1735).

“Elge-” lur landua da eta zabal argi dago zer dan.

ELORDUI: Oñate’n agertu zan baiña zabaldu Bizkaian. (Arrasate-1461).

Elorria arantzadun sasiantzekoa da, eta “-dui” atzuzkiak taldea adierazten dau: “Aranzadi”ren antzekoa da.

ELORTZA: Legazpian, Oiñaten eta Seguran lenengo. Geroa Mungian be bai artzaiñak eroanda-edo. (Navas-1212).

Elorri arantzadun landarea da eta “-tza” ugaritasuna. Elorri asko dagon lekua.

ELORRIAGA: Apatamonasteriotik Bizkai osoara zabaldu da. Gizpuzkoan be asko dago. (Arrasate 1578).

Elorriak dagozan lekua da.

ELORRIETA: Mungialdean eta Derion.

Elorri edo arantza-landara asko dagoan tokia da.

ELUSTONDO: Gipuzkoako Beizamatik Ameriketara igaro da.

Elorri edo arantza-landarearen ondoan esan gura da.

ELOSU: Araban dagon eritxu onetatik Azpeitiara eta Oiñatera igaro da. Emendik Ameriketara. (Bilbao 1700).

Elorri da oiñarria eta “-tsu” atzizkia. Arantzadun zugatz ori ugari dagon lekua da.

EMALDI: Eskoriatzan eta Orozkon dago eta Zeanurin be bai. “Ema-” abereentzat barrutia da, “-al-” “-ari-”tik dator, janari lez, eta “-di” ugaritasuna da. Abereen janari asko dagon lekua.

ENBEITA: Ajangizen eta Muxikan dago. Bean dagozan ema edo barruti-lekuak dira.

ENZISO: Errioxa ta Naparroakoa da baiña Andaluziara be igaro da.

Latiñeko “Incisum”etik etorria dala diñoe eta onek legortean abereak eroateko tokia esan gura ei dau.

EPALTZA: Orozkon eta Etxanon dago.

Iru esangura ezarten jakoz: 1) “Epal-” bedarlekua eta “-tza” ugaritasuna. 2) “Espel-” landarea, erderaz boj, eta “-tza” ugaritasuna. 3) Egibaltza edo aldapa baltza. (1674).

ERZILLA: Bermeon dauka bere etxea, baiña gero Gipuzkoara igaro zan. (Nabarra-1350).

“Erze-” bedarlekua da eta orren atzikia “-illa” ez daki-gu zer dan.

EREÑOZAGA: Mungialdean dago eta andik igaro da Busturira ta Laudiora.

Ereiñotza (laurel) dagon lekua da.

REPARAZ: Baztanen sortua da (1775).

Erregearen baratza esan nai dau.

ERRETOLAZA: Markiñan sortu da.

“-olatza” aterpea dan ezkerro eta asierako “Erret-” erregearen antzekoa, “errege-aterpea” dala diñoe. Beste batzuk “-ola-” oiñarri lez artuta, errementari edo ola asko dagon lekua diñoe.

ERROTAETXE: Arrasate-ingurutik Zeanurira. (Arrasate-1420).

Errotearen etxea esan gura dau.

ESKARTZAGA: Okendon, Laudion eta Gordexolan dago.

“Eskartza-” erderazko arce da eta “-ga” tokia adierazteko ta mugatzaillea indartzeko.

ESNAOLA: Legorretan asi eta Gipuzkoara zabaldua. (Oria-1708).

Esnea dagon lekua esan nai dau. “-ola” ugaritasuna da, baiña egokiago bear ba’da, sasia esan gura dauan “esna-”tik.

EZKURDIA: Bizkaian eta Gipuzkoan.

“Ezkur-” gaur aritzaren frutua da baiña lenago zugatz zan. Abizen onek zugatz asko dagon lekua adierazten dau.

Olazar’tar Martin.